

ARTZAIN ONA

(Ikus Jo 10, 1-18)

Artzain Onaren izena entzuteaz badakigu zer datorkigun guztioi gogora: Jesus onbera dela, bihozpera eta errukitsua dela.

Baina besterik da San Joanez hitz honekin aditzera eman nahi duena, hots: Jesus dela gizonen Artzain egiazkoa eta bakarra. Bera dugula gizonen Artzain jatorra. Aitaren aldetik propio eta berariaz horretarako mundura etorria.

Egia esan, badira bi irudi nahasian bezala San Joanez dakarren alegia honetan: ardiaren ateara eta ardiaren artzainarena.

Eta bada oraindik beste puntu bat Joani txit gogoko zaiona eta behin eta berriz aipatzen duena: ardiek eta artzainak elkar ezagutzen dutela. Ardiek badute beren buruzko sen bat edo ezagutza bat Artzaina ezagutzeko; eta berdin Jesusen ere bere ardiak ezagutzen ditu.

Jesus da atea, zeinetarik ardiek sar-atera egin bait dezakete, artzainak sartuz, larre tokierata irtenaz, eta abar. Eta Jesus da Artzaina, artzain handia eta bikaina, gizonak larratzera etorri den artzain egiazko bakarra.

Beste ebanjelioetan (hiru ebanjelio sinoptikoetan) Jesusen erreinua predikatzen du. Badirudi, beraz, Jesus eta haren erreinua bi gauza desberdin direla; alde batean duzu predikaria eta bestean predikari horrek dakarren berria, mezua. Joanez ebanjelioan ez da hala. Hemen Jesusen pertsonan ematen zaigu dena bildua bezala. Jesusen ekarri digu jaunkoizko bizitzea, bizitze hori emana dago iadanik. Bizitze horren emaleagan jartzen dira begiak, Jesusengan ipintzen da arreta guztia. Mezua eta mezularia: guztia da orobat. Erreinua Jesusen bera da, eta Jesus hori fededunari emana izan zaio.

Jesus bera, Jesusen pertsona bera dugu ebanjelioaren mamia, lehen eta azken hitza.

—oOo—

Gure mendietan badira artegiak. *Eskortak* deitzen dituzte hemengo baserri-tarrek. Artia mendian, esate baterako, maiz ikusi ditut harriz egindako hesi biribil-biribilak; bitarte bat bakarrik edukitzen dute libre, harresi gabe, eta hura

baliatzen dute atetzat. Eskorta hoietan seguru daude ardiak. Gordeleku bat dute han. Artzainak ere bere artalde osoa bildurik ikusten du han, eta ardiak jaisteko toki erosoak du hura.

Lapurra, berriz, ez da eskortan atetik sartzen. Harresi gainetik salto egiten du (Jo 10, 1). Artzaina, bai, hura atetik sartzen da eskortara.

Ardiek berdin: atean barna egiten dute eskortako beren sartu-irtena.

Jesus da, bada, atea. Jesus da nahi-ta-nahiezko, derrigorrezko atea, bizitzean sar-atera egin nahi badugu.

Hain zuzen ere, horretarako etorria da Bera: larrerako atea izan dadin gizonontzat. Jesusen bizia ematen dio gizonari; eta ez bizi urria, ugaria baizik (Jo 10, 10). Eta gizonari bizia emateagatik, bere bizia eman du, gainera.

Artzain Onaren alegian ardi eta artzainekiko kontuak gaindituak gelditzen dira. Errealitateak gainez egiten du, irudiaren ertzak gaindituz. Izan ere, Jesusen gogatik egin duena, ardiengatik egingo duen artzainik ez da munduan.



Ardiek beren artzaina ezagutzen dute. Gizonak ere berdin: Jesus duela bere Artzain ona ezagutzeko, badu bere buruzko argi bat, Argi horrek erakutsirik, badaki Jesus dela gizonen egiazko Artzaina.

Eta azkenik, Jesusek bere bizia emanik, bere odol isurtzearen medioz, ezarri du bere eskorta. Bere odolaz paratu du gizonentzat artegia.

—oOo—

Eta orain dator pasarte bat, guri gaur iresten zaila egiten zaiguna: 'Orain arte etorri ziren guztiak lapurrak ziren' (Jo 10, 8).

Jesus da Jainkoaren Seme bakarra, Aitaren galtzarretik gizonak salbatzera propio etorria.

Gaur badugu arrisku bat, eta ez da arrisku ttipia. Badirudi gure kristau fedea aitortzeaz lotsatzen ga-

rela. Nahiko genuke gure kristau erlijioa munduko beste erlijioen artean bat gehiago izan zedin. Besteekin batean zaku berean sartu, alegia.

Baina kristau sinestearen berezitasuna ukatzea izango litzateke hori.

Erromatarren garaiko Panteoian erlijio guztietako jainko eta jainkosentzat izan zen tokia. Batentzat, ordea, ez zen han tokirik izan: Kristorentzat.

Ez da hertsikeria. Egiari leial egotea baizik.

"Garean garean legez", dio euskal esaera zahar batek.

Guk ez diogu kristau sinestea inori bortxaz ezarri behar, hori ez.

Baina gure sineste hori den bezalakoa zintzoki, xaloki eta arrokeriarik gabe aitortu, hori bai.

Ongi da beste erlijioetan egon daitezkeen egi puskak eta alderdi onak aitortzagun. Besteen balioak ikusteko begiak eduki ditzagun.

Baina denak, gurea barne dela, oin berean jartzeari, hori ez.

Jesus da Jainkoaren Seme bakarra, gizon egina, gizonari bizitzea ematera etorria.

Artzaina, ardi, gidari, ardiak larrera daramatzila, oi Jesusen erretratu jatorra!

A. Luis Villasante